



INFORMAZIO OHARRA

Kultur-politika feministen beharra agerian

Bilboko Sinposioaren 27. edizioa egin berri da eta agerian agertu da jarduera kultural feministak berdintasunaren bidean duen garrantzia

Bilbo, 2023ko urriak 19. Gaur Bilboko La Bolsa eraikina - John Jauregian betaurreko moreak jantzi dira eta ekoizpen guneetako ikaspen feministak praktikotasunetik ezagutzeko aukera izan da, hainbat kultur ekoizpen guneetako eragileen eskuetatik zuzenean. Bertan egin baita Bilboko Sinposioa: “Kultur kudeaketa ekoizpen guneetan: jarduteko modu feministen arrastoan”, Eusko Ikaskuntzak Bilboko Udalarekin eta Emakunderekin batera antolatuta.

Haizea Barcenillak gaia kokatzen lagundu du eta begirada jarri du emakumeen egoerari erakusketetan. Azalpen historikoak medio, bazterkeria nola gauzatu den azaldu du eta egun emakume artistekin, baina batez ere margolariekin, dagoen zor historikoa agerian jarri du. Hori dela eta, erakundeek diskriminazio positiboa egitera deitu ditu. Era berean, Euskal Artearen kanona berrikustera animatu du, ikerkuntza medio, bazterkerietatik aldenduz eta kritikotasunez dagoen aberastasuna azalduz. Azkenik, programazioetan eta epe luzeko edukien plangintzan islatu dezakeen Artearen historiaren eta sistemaren azterketa sakona aldarrikatu du.

Ondoren, esperientzia praktikoen ezagutzetan sakondu da. Bost kidek hartu dute parte: Garaion sorkuntza guneko Amaia Gabilondo; Sormene eta Sarean bitartekaritza guneetako Gotzon Barandiaran eta Sandra Amutxatesgi, hurrenez hurren; eta argitalpengintzaren eremutik Lorea Agirre Eskafandra-Jakin eta Elkar argitaletxetik eta Nerea Fillat Katakraketik. Euren eskarmentuan oinarritutako irakaspenetatik, prestakuntza feminismoaren beharra agerikoa da, ikuspegi feminista ulertzen eta sustraitzen lagun dezakeena eta pertsonak ahaldundu eta politiketan islatuko dena. Era berean, balio komunitarioen eta saretzearen garrantzia azpimarratu dute, lankidetzan eta horizontaltasunean, eta berdintasuna eta bazterketarik gabeko esparru eta dinamiken beharra agertuz. Halaber, baliabideen inguruan aztertzea eskatu da, sormenak baldintza materialak behar dituelako eta prekaritatetik aldentzen gaituelako.



Gaitasun handia dago Euskal Herrian euskal kultura feministaren esparruan, bai gogoeta teorikoan, bai esperientzietan eta zubigintzan. Euskal Herrian egiten den kulturarentzat proiektu komun estrategikoa lantzeko beharra azpimarratu da eta horren arabera baliabideak bideratzeko. Beraz, gogoetari heldu eta elkarlanean hausnarketa elikatzen jarraitzeko eskaera luzatu da.

Eusko Ikaskuntzak horren lekukoa jasota, gogoeta hauek guztiak bildu eta egun garatzen ari den “Eskubide kulturalak: parte-hartze eta gobernantzarako politikak” ikerlerroaren baitan txertatuko ditu. Gainera, 2019an hasitako bideari eusten dio eta orduz geroztik Bilboko Sinposioa berdintasunaren inguruko gaiekin lotzen jarraitzen du, eztabaida, gogoeta eta saretzea elikatu asmoz.



NOTA INFORMATIVA

La necesidad de políticas culturales feministas queda en evidencia

La recién celebrada 27ª edición del Simposio de Bilbao ha puesto de manifiesto la importancia de la actividad cultural feminista en el camino hacia la igualdad

Bilbao, 19 de octubre de 2023. Organizado por Eusko Ikaskuntza en colaboración con el Ayuntamiento de Bilbao y Emakunde, hoy en el Edificio La Bolsa de Bilbao - Palacio John se han puesto las gafas moradas se ha celebrado el Simposio de Bilbao "La gestión cultural en los centros de producción: sobre la pista de las formas feministas de actuación". Dicho simposio ha permitido conocer desde una perspectiva práctica los aprendizajes feministas en los espacios de producción cultural, directamente de la mano de las agentes que participan en los mismos.

Haizea Barcenilla ha ayudado a situar el tema y ha puesto la situación de las mujeres en las exposiciones. Tras un repaso histórico ha explicado cómo se ha llevado a cabo la exclusión de las mujeres y ha puesto de manifiesto la deuda histórica que existe actualmente con las mujeres artistas y, sobre todo, con las pintoras. Por ello, ha llamado a las instituciones a hacer un trabajo de discriminación positiva. Asimismo, ha animado a revisar el canon del Arte Vasco, a través de la investigación, alejándose de las exclusiones y explicando con una mirada crítica la riqueza existente. Por último, ha reivindicado un análisis exhaustivo de la historia y del sistema del Arte que pueda reflejarse en las programaciones y en la planificación de contenidos a largo plazo.

A continuación, se ha profundizado en los aprendizajes de experiencias prácticas. Han participado cinco personas: Amaia Gabilondo del centro de creación Garaion; Gotzon Barandiaran y Sandra Amutxatesgi de los espacios de mediación Sormene y Sarean, respectivamente; y desde el ámbito editorial Lorea Agirre de Eskafandra-Jakin y Elkar y Nerea Fillat de Katakarak. Desde enseñanzas basadas en su experiencia, han evidenciado la necesidad de un feminismo formativo que ayude a entender y enraizar la perspectiva feminista y que empodere a las personas y se refleje en las políticas. Asimismo, han destacado la



importancia de los valores comunitarios y la creación de redes, basadas en la cooperación y la horizontalidad, y la necesidad de igualdad y de marcos y dinámicas exentas de exclusiones. También se ha pedido que un ejercicio de análisis sobre los recursos ya que la creatividad se nutre de condiciones materiales, de lo contrario podría suponer un regreso a la precariedad.

Se ha evidenciado la capacidad existente en Euskal Herria en el ámbito de la cultura feminista vasca, tanto en la reflexión teórica como en las experiencias y en tender puentes y se ha incidido en la necesidad de elaborar un proyecto común estratégico para la cultura que se desarrolla en Euskal Herria y en consecuencia destinar recursos. Por lo tanto, se pide que se aborde la reflexión y se siga alimentando la reflexión de forma colaborativa.

Recogiendo el testigo, Eusko Ikaskuntza aglutinará todas estas reflexiones y las integrará en la línea de investigación "Derechos culturales: políticas de participación y gobernanza" que se está desarrollando actualmente. Además, mantiene el camino iniciado en 2019 y desde entonces sigue ligando el Simposio de Bilbao a temas de igualdad, con el objetivo de alimentar el debate, la reflexión y la creación de redes.